

ENPRESEN konfiantza

2026KO 1. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa




LABORAL
kutxa

2026KO 1. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK




0 | INGURUNEA

LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2026ko lehen hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Emaitzek erakutsi dutenez, ez da aurreko hiruhilekoa bezain positiboa izango ingurune ekonomikoa. Zehazki, enpresen % 8,2k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 51k uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 40,8k, okerrera egingo duela.




1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, 2025eko laugarren hiruhilekoaren antzeko ikuspegia dute enpresek. Zehazki, galdetutako enpresen % 27,5ek uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 58,9ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 13,6k okerragoa izango dela aurreikusten du.




2 | JARDUERA

JARDUERAk, berriz, 2026ko lehen hiruhilekoan hobera egingo du % 22,5en iritziz, eta % 19,1en arabera, okerrera. Lagineko gainerako % 58,4ak, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortzen da berehala: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek; hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, espero da kantitateen nolabaiteko egonkortasuna eta prezioen gorakada aurreko hiruhilekoekin alderatuta. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun dioten % 29,7ren iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 14,1en ustez, txikitu. Enpresen % 56,2ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 47k uste du igo egingo direla, eta % 49,8k, bere horretan jarraituko dutela.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 82,7ren arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da, eta enpresen % 17,3k uste du etekin handiagoa lortuko duela.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek erakusten dutenaren arabera, ikuspegia aurreko hiruhilekoko baino apur bat baikorragoa da, eta horrek inbertsioari ere eragingo dio.

INBERTSIOAren bolumenari begira, enpresen % 20,3k uste du handitu egingo direla 2026ko lehen hiruhilekoan; % 11,4ren ustez, berriz, behera egingo du. Hortaz, inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago galdetutakoen % 68,3.



7 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 84,2k erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 11,4k langile-taldea handitzeko itzaropena du, eta % 4,5ek guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2026KO BESTE ADIERAZLE BATZUK




8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA

Aurreko adierazleak –inguruneari buruzko iritzia izan ezik– gehitu eta haztatzen baditugu, 56,5eko konfiantza-indizea lortuko dugu. Hau da, aurreko hiruhilekoko baino handiagoa, 53,6koa izan baitzen. Beraz, enpresek ikuspegi baikorra dute ekonomiaren bilakaerari buruz, **2026ko lehen hiruhilekoari begira**. Indizearen balioa 50etik gorakoa izateak jarduera hedatzen ari dela adierazten du. Gainera, balioa handiagoa da eurogunean lortutakoa baino –52,5eko datua lortu zen urrian–, eta Estatu osoan lortutakoaren antzekoa –56koa, urrian–. Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu; ez dira aurretik azaldutako indizean sartzen. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 31,9k uste du hobetu egin direla, eta % 14,3k, okertu egin direla. Beraz, % 53,8k uste du atzerriko salmentek berdin jarraitu dutela.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZari edo I+Gko EKIMENei bideraturiko salmenten ehunekoaren inguruan, inkestaturen % 62,1 balio minimoetan kokatzen da: Ezer ez eta % 1 artean. Bestalde, % 17,9k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 | BEZEROEI KOBRAZKEKO EPEAREN BILAKAERA


Inkestari erantzun diotenen % 79,2rentzat, bezeroei KOBRAZKEKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 15,8ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 5ek soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 80,2k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 13,1ek dio hobetu egin dela, eta % 6,7k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




A large, stylized logo consisting of the letters 'G' and 'V' in a bold, sans-serif font. The 'G' is a thick, dark grey ring with a white center, and the 'V' is a solid dark grey shape. The logo is positioned on the right side of the slide, partially overlapping the text.

ADIERAZLEAK 2026AN IZANGO DUEN BILAKAERAREN LABURPENAREN GRAFIKOA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzial eta osoen balioak ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

- EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.
- Landa-azterketa abenduaren 7tik 12ra bitartean egin zen.